

Ni-neuri ez jatan etorriko burura olako artikulu bat idazteko asmorik. Baiña orain dala denpora gutxi Imanol Oruemazagak dei egin eustan telefonoz eta onan esan eustan: "Zuk, Jesus, badakizu emen Ondarroan "Ondarroako Historia Zaleak" deritxon taldea osotzen doguna. Azpaldi onetan gaiñera "errepresio aldiko" ainbat historia idazten doguz "Ondarroa" izeneko urtekarian. Eta gogoratzen naz zeuk ere, Ondarruko abadeok, "Kristo Erregeren gerrileroen" bisita triste ta mingarri bat euki zenduela ... elizan "itxialdi" bat egoala-ta. Ondo egongo litzateke astinaldi aren buruz artikulo bat idatziko bazendu".

Bai, pozik ere, erantzun neutsan. Eta idazkitxo au asteko bidea, barriz, "Ondarroa 2009" urtekariko artikulu batek emon deust: " Andoni Arrizabalagaren Eriotz Zigorren 40.Urteurrena".

Gu, Ondarruko abadeok, 1969. urteko urtarrilean etorri giñan Ondarroara. Urtarrilla ez da izaten abadeen nonbramentuak egiteko sasoa, baiña gure kasuan, beste gora-beera batzuekaitik subertatu zan olan.

1968. urtea urte larria izan zan gure artean eta, batez ere, Ondarroan. Urte onetako historia larriak ederto azalduta datoz "Ondarroa" 2009" izeneko urtekarian, "Andoni Arrizabalagaren eriotz zigorren 40. urteurrenean" deritxon kapituluan,

Eleiz arazoetan ainbat abade izan ziran espetxeratuak. Baita itxialdi, "enzerronak" ere izan ziran. Abustuaren 16'tik 24 arte 40 abadek artu zituen Bilboko Mazarredo kalean aurkitzen zan Obispaduko bulegoak. "Gogorkeriaren aurka, gogortasuna" izan zan eslogana. Geroago, azaroaren 4an 60 abadek artu eben Derioko seminarioa.

Gora-beera guzti oneek, jakina danez, ondarrutarren artean ainbat protesta sortu ebezan. Batean izango zan plaixi ez kentzeko manifestaldia; bestean, parrokiako abadeen jokabidearen kontra, goizaldean kanpantorreko kanpaiak jotea; baita, protesta gisa, parrokiako mezei boikota egitea ere.

"Parrokiaren kontrako giroa, baretu bearrean, gaiztotu egin zen 1968ko uztailaren 30ean Bilboko Poliziak Kaminazpiko elizatxoaz arduratzen zan abadea atxilotu eta Zamorako espetxera eroan zuenean. (Abade au Imanol Oruemazaga zan). Eliztarren boikotak ondorio larriak bere ekarri zituen 1969. urtean. Ondarroako apaiz guztiak aldatu eta berriak izendatzeko erabakia artu zuen Bizkaiko Gotzain eginbearrak betetzen ari zen Cirarda gotzainak" ("Ondarroa 2009").

Bai, baiña Jose Maria Cirarda gotzainak ez eban artu erabaki au itsu-mustuan. Erabaki au artu baiño leen, ainbat batzar eta alkarrizketa izan zituan Ondarroako eliztarrekin. Baina, batez ere, Imanol Oruemazaga abadeagaz euki eban alkarrizketa interesgarri bat Cirarda gotzaina eta Imanol Ondarruko gora-beera guztiei buruz berbetan eta gauzak konpontzeko urtenbide baten billa izketan ari zirala, Imanolek esan eutson gotzainari: Ondarruko Elizako prolemak konpontzeko biderik onena, leengo abade taldea kentzea eta beste talde barri bat ipintea izango litzatekela. Eta obispoak Imanoli: Eta zuk-zeuk ere besteekin batera urtengo zeunke? Eta Imanolek erantzun: Erriaren eta Elizearen onerako bada neuk urtengo neuke leenen.

Jose Maria Cirardak ontzat artu zituan Imanolen berbak eta abade talde barri bat batzen asi zan. Leenengo, abade-taldeko buru izango zan Emiliano Iturraran aukeratu eban. Emiliano Saturraranekeo seminarioko irakaslea izan zan ainbat urtetan eta naiko ondo ezagutzen eban Ondarroako erria. 1960. urtean 339 abadek egindako dokumentuaren bultzagilea izan zan. Abade euskaldun (clero basko) lez ixilpean ainbat lan egindakoa. Baita Elorrioko Funcor kooperatibearen fundatzailea ere. Gero, Emilianok Andoni Basterretxeari dei egin eutson. Andoni erriko semea zan, baita Saturraranekeo irakaslea izana ere; aspaldian "Los Rios"eko misiolaria; eta gorago aipatu dodan Andoni Arrizabalagaren osaba. Gero dei egin eutson Pedro Omaetxebarriari, Errigoitiko semea, baiña ainbat urtetan Gernikan egoana eta gure erriko prolemakin guztiz kezkatuta bizi zana. Niri ere dei egin eustan gotzainak Don Jose Anjel Ubieta, bikario orokorraren bitartez eta dei egin eustan, ain zuzen, Arratiako Arantzazura joan-barri nintzala.

Baiña emen ez zan asi nire historia. Aurrerago, abade eginaz batera, ni euskadun eta euskalzalea izanik, Pablo Gulpide gotzainak emon eustan ostikadeaz Karrantzara bialdu nendun eta Karrantzan aparterengo egozan bi parroketara gainera eta Kantabria aldeko beste parroki batera: Sangrizez eta La Calera (Bizkaian) eta El Prado de Soba (Santanderen). Karrantzan egon arren, gure erriko eta Eleizearen gora-beerak adi-adi jarraitzen nituen. Durangon, Bilbon eta Madrilen (Alberto Gabikagogeaskoa abadearen juizioa, ain zuzen) izan ziran abadeen juizioetan egon nintzan.

Karrantzan iru urte eginda gero, aukerea euki neban eta Madriler a joan nintzan Comillasko Unibertsitatean Teologiako Lizentziaturea egitera. Madrilen nengoala, Jose Antonio Retolazak esanda, kurtso bitan, domeka guztietan mezea euskeraz emoten neutsen Euskal Erriko estudianteei, Moncloa etorbidean zegoen "Landiras" izeneko erresidentziko kapera baten. Onen lekuko dira Madrilen ikasten egon ziran ondarrutar batzuk, adibidez, Sabas Bedialauneta, Antonio Korpion, baita Txomin Akarregi bere: Txomin beste arazo batzuetan etorten zan, baita Santa Agedaren kantak kantateko bere beti etorten zan gure artera.

Aparteko errietatik ibilli arren ere, nik arreman estuak euki nituen beti Ondarroagaz, abadegai nintzala eta abade eginda gero ere bai, batez ere Luis Mari Burgoa, Karmen Baltzaneko abadearen lagun mina izan nintzalako. Egia esan, nik beti interes aundiarekin bizi nituen Ondarroako prolemak.

Madriren Lizenziaturea amaitu ondoren, ni Arratiako Arantzazun nengoala, 1968ko azaroaren 18an il zan Gurrupide gotzaina eta Zirarda jauna izendatu eben . Bilboko Administradore Apostoliku. Une onetan, gorago aipatu dodan Jose Anjel Ubieta bikarioak deitu eta esan eustan nire izena ere emon ebela Ondarroara joateko. Pentsateko, kontsultateko eta gero erantzuna emoteko. Zuzen-zuzen, Don Jose Maria Dañobeitiaren etxera joan nintzan arazo au kontzultatera, bera izan zalako beti seminarista denporetatik nire laguntzaile ta aholkularia. Uste barik, bere etxean batzar baten egozan beste abade jator eta ekintzaile batzuk: Don Luis Agirre, Don Justin Arteaga eta Don Modesto Arana, berriztar musikolari ospetsua. Danak euren oneritzia emon eusten Ondarroara joateko. Batez ere, Don Modestok auxe esan eustan: "Adiskide, Ondarroara joatea gaur-egun abentura bat da, baiña zu gaztea zara eta merezi dau abentura ori bizitzea". Andik lasterrera il zan.

Olan ba, 1969ko urtarrilaren leenengo egunetan eldu giñan Ondarroara. Eta geldike-geldike, parrokiako arazoetan asi ginan lanean. Egia esan, gure elizea erdi utsik aurkitu gendun aurreko urtean Elizearen kontra sortu zan boikotak aurrera segitzen ebalako. Iparkaleko etxean biziten asi ginanean talde asko etorten jakuzan, alderdi batekoak eta besteakoak, euren arazoei buruz geugaz berba egitera. Guk beti ondo artu genduzan, naiz eta euren gustoko gauza batzuk guk ezin bete, gure eskuetan ez egozalako.

Olako baten etorri jakun Imanol Oruemazaga eta esan euskun, berak obispoagaz artu eban konpromisoa ezin ebalako bete, bere kristau komunitatekoek eurekin geratzeko eskatzen eutselako. Izan ere, Kaminazpiko kristau komunitatea ezaguna izan zan komunikabideetan, batez bere, "Vida Nueva" izeneko Espainiako Elizearen asterokoan. Egia esan aldi aretan olako komunitateak, "baseko kristau komunitateak" edo Eliza paraleloak esaten ziranak leku askotan sortu ziran, batzuetan, Eliza ofizialetik aparte .

. Guk, gure aldetik, esan geuntzan Imanoli joateko Kaminazpira eta an jarraitzeko bere lana. Ezkontzeko asmotan etorten ziran gazte-bikote askok Imanol ezkatzen eben euren ezkontza bedeinkatzeko eta beti emoten jakon baimena eginkizun orretarako. Batzuetan erritik kanpora joan bearra eukanean, geuri eskatzen euskun laguntasuna eta gutariko batenbat joaten zan Kaminazpira meza emotera. Egun baten neuri subertatu jatan Kamiñazpira joatea eta kapera ondoan nengoala, an agertu ziran abade bi: Jose Antonio Retolaza eta Patxi Bilbao. (Jose Antonio Retolaza euskera ikasteko "Kili-Kili" izeneko sistema polita sortu ebana zan eta Patxi Bilbao ainbat urtetan Ea'ko abadea izan dana). Ni an ikusirik eta Imanolek eskatuta meza emotera etorri nintzala entzun ebenean zurtz eginda geratu ziran, eurak ez ebelako uste olakorik. Eta nundik urten ez ekiela, amaitu gendun geure komertazinoa eta joan ziran.

Aldi onetan Imanolek epaiketa bi euki zituan Madrilen, bata "Propaganda ilegalagaitik" eta bestea "Asociación ilicitagaitik". Epaiketa bietan abokatu defendatzaile Mitxel Unzueta EAJ-PNVko abokatua izan zan. Epaiketa bietatik baten, testigu laguntzaile lez Emiliano Iturraran parrokoa eroan eben. Eta juezak Iturrarani berba egiteko agindu eutsanean, Emiliano Iturraranek, bere burua Don Pedro Arakamatzat eginda, olan erantzun eban: Guk abade zaarrok, (Iturraranek bere kalbo aundiagaz eukazen urteak baino geiago emoten zituan) uste gendun Imanolek politika egiten ebalu bere sermoietan eta beste ekintza batzuetan, baiña orain, Vatikanoko Kontsilioko dokumentuak irakurrita gero, orain konturatzen naz abade onek giza-eskubideak eta erri-eskubideak defendatzen zituala.

Madrileko juizioa amaituta gero, egun baten Imanol geure etxera etorri jakun Emilianori eskerrak emotera Madrilen euki eban juizioan emon eutsan testigantzeagaitik. Gure Iparkaleko etxeko jantokian Emiliano, Andoni, Pedro Omaetxebarria eta neu gengoan Imanol gurera etorri zanean. Barriketan ekin geuntzan eta alako baten, olan esan euskun Imanolek: "Orduan zuok jendea elizara eroaten aaleginduko zaree?". "Bai, orixe", erantzun geuntzan. Eta berak geuri: "Ba, nik aalegin guztiak egingo ditut jendea elizatik atarateko". Auxe esan, altsa zan eta joan zan. Jakiña danez, gu guztiz arrituta geratu giñan, baiña aurrerantzean olantxe bide orretatik jokatu eban.

Egunak joan egunak etorri, 1969ko urtea amaitu zan eta 1970ko urtea aurrera joian. Abenduaren 3' an asi zan Burgoseko Prozesua eta prozesuko erabakiaren zain egoan jendea, estu ta larri. Abenduaren 15an Aita Santuak eskabide au egin eutson Españako Gobernuari: Eriotz epairik subertatzen bazan, eriotz epai ori ez betetzeko.

Giro larri ta estu onetan, eta abenduaren 12an-edo, jende taldetxo bat etorri jakun sakristegira gugaz berba egitera eta euren asmoak guri jakinaraztera. Asmoa zan eliza-barruan itxialdi edo "enzerrona" bat egitea aldi aretan bizi gendun politika negargarriagaitik. Izan ere kontuan eukitekoak ziran, adibidez, langileen huelgak, espetxeratuak eta espetxeratuei emiten jakezan zigor larriak, baita eriotz zigorrak ere. Orrez gaiñera, barriz, Burgoseko Prozesua.

Guk esan geuntzen euren asmoak asmo onak zirala baina elizea ez zala orretarako. Alan ere eurak uste eben, uste normala, beste leku baten olako ekitaldia egitea eziñezkoa izango zala eta, gaiñera, goardia zibilen eskuetan jausteko arriskuan geratzen zirala. Eta esan euskuen, guk nai ala ez, eurak elizan geratuko zirala gau ta egun. Orduan esan geuntzen elizan egozan ezkerro eta, batez ere, meza orduetan, errespetoz egoteko. Gero konpondu giñan elizako ateetako giltzen gora-beera guztiekaz eta an geratu ziran. Nik-neuk ez dot uste jokabide au jokabide garbia zanik: ain zuzen Elizeari boikota egiten ziarduenak non datozen elizara manifestaldi luze bat egitera. Elizan obeto zainduta egozalako eta, azken baten, abadeak errudun lez geratzen ziralako. Antxina esaten zan lez: "Auxe da iñoren buztanarekin euliak kentzea".

Laster zabaldu zan errian elizako itxialdi onen barria. Baita goardia zibilak bere jakinaren gaiñean egozan eta laster asi ziran eliza ingurura urreratzen, naiz eta elizan sartu ez, Gu abadeok, goardia zibilak elizan sartuko ete ziranen beldur giñan eta, orrexegaitik, beti egoten giñan baten bat sakristegian. Elizan sartuta egozanak, batzuk urten, beste batzuk sartu, euren txandak egiten zituen. Orretarako, meza orduak aprobetxatzen ebezan, mezan egondako pertsonakin batera kanpora urteteko, atentzinorik deitu barik. Ala ere, goardia zibilak baten batzuk ezagutu-edo egiten zituen eta elizatik urteeran eldu eta nortasun agiria kentzen eutseen. Gero, guk abadeok, kuartelera joan bear izaten gendun nortasun agiri orreen billa. Ni neu beintzat bi edo iru bidar joan nintzan kuartelera arazo onetan.

Bestetik, laster asi zan erriko alkatea deika eta amenazuka. Aldi aretan, Migel Anjel Arrizabalaga "Xaxi" zan alkatea. Don Emilianori deitzen eutsan beti kontuak artzen eta amenazuka. "Ea noiz ataraten dozuezan elizan dagozanak. .. elizeari errespetoa galtzen dagozalako... ea neuk bialtzen deusuedazan "Kristo erregeren gerrileruak" jentemodu ori elizatik atarateko... eta abar. Don Emilianok beti gauza bera esaten eutsan: "Zu, ago zabal ori, mesedez, ixilik egon zaitez. Au ez da zure arazoa. Zu emen ez zara inor elizako arazoak konpontzeko"

Ez dakit zenbat egun garrenera beste arazo bato Irrati bidez, gau baten, jakin gendun "Salbuespen Egoera", estado de excepción, ezartzen zala Euskal Errían, Egoera larria zan erritar guztiontzako baina, batez ere, elizan sartuta egozanentzako. Egoera onetan, gu abadeok, goardia zibilen beldur giñan elizan sartuko ziraIakoan. Orregaitik, elizako giltzak artu eta elizara joan giñan Emiliano ta biok an egozanei "Salbuespen Egoera" onen barri emotera. Sakristegian sartuta egozan: batetik, egunez elizan sartuta egoten ziranak eta bestetik, gabaz eurakin tertulixe egitera sartzen ziranak. Irratia entzuten eta euren komentarioak egiten aurkitu genduzan.

Guk esan geuntzen "salbuespen egoera" ori zarata jakiñaren gaiñean ipiñi nai genduzala. Olako egoera baten, bear bada, goardia zibilak sartu leikeezala elizan eurei egurra emotera. Eta eurak, orduan, onan esan euskuen: "Eta zuok lagakotzazue goardia zibilei elizan sartzen?". "Guk laga ez, ezta gitxiagorik bere, baiña eurak, nai badabe, geure gaiñetik sartu leikez", esan geuntzen. Ala bere, eurak elizan jarraitzeko erabakia artu eben.

Bederatzigarren egunean-edo, domekea zan, abenduaren 20a, elizan sartuta egoan taldeko bat etorri jakun sakristegira, elizatik urtetea erabaki ebela esatera. Guri eskerrak emoten euskuezala tratu ona emon geuntzelako eta ondo zaindu genduzaIako, naiz eta gugaz konforme egon ez gu erriak aukeratutakoak ez giñalako. Karta bat emon euskuen eta azkeneko mezako jenteagaz batera kalera urten eben.

Elizako atea itxi eta etxera joan giñan abadeok. Gau aretan, afaltzeko orduan, abade bi bakarrik gengoan, Emiliano ta biok; Andoni bere etxekeekin geratu zan eta Pedro Omaetxebarria Eskola-Peskako zinemako arazoen baten egoan. Gurekin batera, Elorrioko Karmen Gallastegi zapatu-domeketan etxeke arazoetan laguntzera etorten zana eta Karmen baltzaneko Nati Burgoa subertatu

Maaian jarri giñan afaltzeko asmotan eta elizan emon euskuen karte, irakurten asteaz batera, ateko txirrine entzun zan eta Karmen joan zan atera nor izan zeitekean ikustera. Onetan etorri zan sukaldera, afaltzen gengoan tokira, eta esan euskun: "Gizon bat dago atean eta esan dau "Arrizabalan" partez abade batek urteteko, baiña ez deusat itsura onik artu", Emiliano altsa eta atera joan zan, badezpadan Karmen bere atzetik joiala. Atean agertzeaz batera Emilianori pistola bat ipiñi eutsoen bularrean, baina Emilianok kolpe egin eutsan pistoleari eta indarka borrokan lez asi ziran biak. Indarka ebiltzala pistoleagaz buruan zauritu eben Emiliano. Alan ere Emilianok lortu eban bestearen eskuetatik iges egitea eta barruko gela baten sartu zan. Karmen ere, zarataka ebilela-ta, ondo astindu eben. Ni eskatzean nengoala zarata batzuk entzun nituen eta neu ere altsa nintzan ea zer pasaten zan ikusteko. Eskatzeko atea zabaldu eta pasilora urten nebanean, an etorren beste gizon aundi bat, pistolea eskuan ebala: "Somos Guerrilleros de Cristo" Rey", deiadarka. Bildurtu nintzan eta Nati bota" neban komedorera, baiña ni bete-betea atrapa nendun uste barik, eta leenengo pistoleaz emon eustan kolpeagaz ezpana ebagi eustan. Gero, sukaldean, neu bakarrik atrapa nendun eta iñon diran zigorkadak emon eustazan kateekin egindako zigorATEGAZ. Ni, kirikixoen moduan, batu-batuta, bildurraren bildurrez, pentsatzen dot miñik ere ez nebala sentitzen. Gero, sukalde baztarrean nengoala, afaltzeko plater eta janariekin geunkan maaia gaiñera irauli eustan eta, azkenez, aulki bat jaurti eustan gaiñera, baiña ori ikusi egin neban eta alboratu edo makurtu egin nintzan eta aulkia, kristal guztiak apurtuta balkoiko atean sartuta geratu zan. Eta eurak gerrileruok alde egin eben.

Edozeinek pentsa leike zelakoa izango zan gure paraderoa. Gu odola dariola eta gorputzean sartuta geunkan sustoaz geure senera etorri ezinik geratu giñan. Etxeko pasilo guztia lore-ontzietako lurraz zikinduta. Sukaldea ankaz gora. Ez genkian zer egin ez nondik asi. Onetan, telefonoaren txirrina. Artu gendun eta abots batek: "Ondo zagoze ... zeozer pasa jatzue ... ze nik Iparkaletik beera laubost gizon ezezagunak ikusi ditut eta euretariko batek besoa gabardina barruan eskutauta eroien ... " Emakume au Zelia Goikolea (Martin Kanposen andrea) izan zan. Niri gerrileruak aulkia jaurti ta balkoiko kristalak apurtu zituanean, Zelia, gure etxearen aurrez-aurre bizi zan eta balkoian erropak eskegiten egoala, gure etxeke kristal otsa entzun eban eta dei egin euskun. Neuk berba egin neban beragaz eta eskerrak emon neutsazan biotzez.

Osagileari deitu geuntzan eta bereala etorri jakun eta geugaz berbetan egon zan ainbeste denporan. Goardia zibilei deitu eta ez ziran agertzen, andik iru ordura-edo etorri ziran. Etorri ziran, bai, eta ezer jakin ez balebe lez, an egon ziran plantak egiten eta geuri ganorabako deklaraziñoak artzen. Nik azaldu neutsen dana neure erara eta zelan esaten eben eurak "somos guerrilleros de Cristo rey" eta zelako zigorra emon euskuen. Eta goardia zibilak neuri:

"Gerrileruak ... eta Kristo erregearenak" ... orrek ez dau ondo joten". Eta neuk berari: "Ez dauala ondo joten, emen egon baziña ikusiko zenduan zelan jotzen eben".

Esandakoetatik ikusten dan lez, Migel Anjel Arrizabalaga "Xaxi" alkatearen amenazuak egi biurtu ziran eta berak dei eginda etorri ziran gerrileruok. Eta etorri ziran, ain zuzen, elizan egozanak elizatik ataratera, baiña eurak eldu ziraneko elizako "itxialdikoak" urtenda egozan, baita beste guztiok bere. Orduan, elizako arduradun lez, abadeokana etorri ziran geuri egurra emotera.

Baina gauzak zelan diran. Egun aretan an etorren Txomin San Martin poz-pozik etxera Bilbon Jijoneko Sporting-en kontra Athletic irabazitako partidua ikusita gero. Berritxure eldu zanean "Zentraleko Taberna" ondoan, non ikusten ditun Ondarruko alkatea Migel Anjel Arrizabalaga eta Hilario Beitia beste 5-6 lagun ezezagunekin. Eta Txominek bere kolkorako: "Gaur Ondarrun zeozer baiña gauza txarren bat pasako da". Bixamonean, gure gauzak jakin zituanean geu ikustera etorri zan eta kontu guztiok kontatu euskuzan.

Olako gauza bat ez deusat desiatzen ez-ta areriorik aundienari ere. Baina, egia esan, gerrileroen bisita au ondo be ondo etorri jakun guri, abadeoi, abade lez esan nai dot, erritar asko ta askoren aurrean. Zergaitik? Erriko talde batek eleizeari egiten eutson boikota ikusirik, beste askok eta askok uste eben gu bere antigualeko abade trabukaire batzuk giñala. Gerrileroen jokabidea ikusirik jendea beste modu baten pentsetan asi zan, baita egiten bere.

**KRISTORENAK, KRISTORENAK GARA
KRISTORENAK ARTUTA ETORRI
GARA.**

Garitaonandia ta Sarduitar Jesus
Begoñako Santutegiko Erretorea

Erabilitako liburuak:

Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA (Francisco Letamendia "Ortzi") Sacerdotes bajo la atenta mirada del régimen Franquista (Anabella Barroso) Apunte batzuk (Andoni Basterretxea).